



504/2026 EBAZPENA, martxoaren 11koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Langileen eta Talentuaren zuzendariarena, zeinaren bidez agintzen baita Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko abenduaren 19ko 2081/2025 Ebazpenaren bidez argitaratutako lanbide-garapeneko ohiko deialdian onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda argitaratzea.

Azaroaren 22ko 395/005, otsailaren 27ko 35/2007 eta abenduaren 26ko 248/2007 Dekretuen 11. artikulua ezartzen duenez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari dagokio mailaketarako ebaluazio-prozesuaren deialdia egitea. Dekretu horien bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lan egiten duten lizentziadun sanitarioen, diplomadun sanitarioen eta lanbide-heziketako langile sanitarioen eta administrazioko eta zerbitzuetako langileen lanbide-garapena arautzen da.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren abenduaren 19ko 2081/2025 Ebazpenaren bidez, arautzen dira Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren mendeko zerbitzu-erakundeetako profesionalentzako 2025eko ekitaldiari dagokion lanbide-garapenaren maila esleitzeko ohiko deialdiaren baldintzak, eskabideak eta ebaluazio- eta esleipen-prozedurak, bai eta 2022, 2023 eta 2024ko ekitaldiei dagozkienak ere, deialdiak arautzen zituzten ebazpenek eskatzen zituzten sartzeko baldintzak betetzen ez zituzten profesionalentzat.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren abenduaren 19ko 2081/2025 Ebazpenak agintzen du argitaratzeko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko abenduaren 19ko 2081/2025 Ebazpenaren bidez argitaratutako lanbide-garapeneko ohiko deialdian onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren abenduaren 19ko 2081/2025 Ebazpenaren 5. artikuluan ezarritakoaren arabera, ohiko deialdian bertan ezarritako epean behin-behineko zerrenda argitaratzearen aurka egindako erreklamazioak ebatzi ondoren, onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda onartuko da, eta, baztertuen kasuan, baztertze arrazoiak adieraziko dira.

Aurreko guztiagatik, eta emandako ahalmenez baliatuz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Onartzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren abenduaren 19ko 2081/2025 Ebazpenaren bidez argitaratutako deialdian parte hartu duten Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako profesionalen artean onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda, ebazpen honen eranskinetan jasotako zerrendaren arabera:

I. eranskina: Maila esleitzeko deialdian onartutakoen behin-behineko zerrenda.

II. eranskina: Baztertutako eskabideen behin-behineko zerrenda.

Bigarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren abenduaren 19ko 2081/2025 Legearen 5. artikulua lehenengo paragrafoa kontuan hartuta, hamar egun balioduneko epea ematen da erreklamazioak aurkezteko eta eskabidea zuzentzeko, ebazpen hau Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Erreklamazioak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren lanbide-garapeneko aplikazio informatikoan egin ahalko dira, helbide honetan: <https://lanbidegarapena.osakidetza.eus>.

Hirugarrena.– Erreklamazioak aurkezteko epea amaituta, ebazpena emango da onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko da. Ebazpen hori Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko martxoaren 11.



Osakidetza
Josune Retegi Ormazabal
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

Izpta.: JOSUNE RETEGI ORMAZABAL

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO LANGILEEN ETA TALENTUAREN ZUZENDARIA